
“Epaitegiek heritargoarengan sortzen duten zirrari aurre egin eta beren eskubideak aldarrikatzeari beldurrik gabe ekin diote heritarrek.”

Justizi Administrazioak koofizialtasunera egokitu beharra duela argi eta garbi gelditu

zelako. Hor ditugu bertan jasotako ondorioak; Justizi Administrazioako operadore desberdinen artean gaia aztertu eta plangintza bati ekiteko batzorde berezi bat eratu beharra azaldu zen. Eskualdaturiko funtzionarioak normalkuntza plangintza batean murgildu behar dutela adierazten duena, eta epailetzarekin akordioak burutu beharra agertzen duena. Hor kokatzen da ere behin-behineko irtenbide bezala, bere garaian Bizkaiko Euskara batzordeak proposatu eta berriro ere indar berriz Gipuzkoa aldetik proposamen bezala bideratzen ari den “zirkuitu euskaldunen” ezartzea. Modu labur batean, euskarazko auziak ezagutuko lituzketen laguntzazko eskubideak bermatuak izan daitezke. Horrekin batera bada beste ekimen pozgarri eta esperantzagarri bat, hain zuzen Euskal Herriko abokatu euskaldun guztiak bildu asmo duen *Abokatu Euskaldunen Sindikatua*-ren sorrera, ekimen benetan interesgarria, gure herriak bizi dituen errealitate desberdinei aurre egiteko asmo duena eta ziurrenik hilabeteotan zeresan ugari sortuko duena. Hemendik zorte ona opatzea besterik ez.

Epaitegietako inprimaki-ereduak euskaratzen

Lore AZKARATE

UZEI

Epaile euskaldun batzuek bultzatuta eta Justizia Sailaren ekimenez, orain dela bi urte, 1996ko otsailean, hasi ziren epaitegietako inprimaki-ereduak euskaratzen.

Hasieratik bertatik batzorde zabal bat osatu zen itzulpeneko irizpideak bateratzeko, Zuzenbide mundua euskaratzeko lanean diharduten talde desberdinetako ordezkariak elkartuz: EHU eta Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide fakultateak, Bizkaia eta Gipuzkoako abokatu elkargoak, HAEE/IVAP, UZEI, Justizia Saileko euskararen arduraduna eta epaile euskaldunak.

Dagoeneko ehun eredutik gora prestatu dira auto, probidentzia, epai, zitazio-zedula,

exhorto eta abar barne hartuz, eta lanak aurrera jarraitzen du. Lehen saioan epaiketa zibileko lehen auzialdiko ereduak landu ziren, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoetako eredu-sail baten ondoren, penaleko instrukzioarekin ari dira orain, eta erregistro zibilekoei eta sozialekoei aurki helduko zaie txanda.

Lantaldearen aldetik, esan beharra dago talde hau dela orain arte lortu den plataforma zabalena Zuzenbidea euskalduntzeko bidean eta hasiera batean elkar hartzea eta adostasuna lortzea erraza izan ez bazen ere, aurreratzen ari dela Zuzenbideko hizkera bateratzeko oinarriak sendotzen.